

INGURUMENEN BILERAREN AKTA (23.10.17) **TOKIKO FOROAREN ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE (17.10.23)**

ALKATEA
AMAIA AGIRRE and.

ALCALDESA
D^a AMAIA AGIRRE

INGURUMENEN ZINEGOTZIA:
IÑIGO URKITZA jn.

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. INIGO URKITZA

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO ZINEGOTZIA:
JANIRE OCIO and.

CONCEJALA DEL ÁREA DE INFRAESTRUCTURAS, OBRAS Y SERVICIOS:
D^a JANIRE OCIO

INGURUMENEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

SECRETARIA DEL FORO:
D^a ARANTZA CABEZA

ZERBITZU TEKNIKOEN ARLOA – ZERBITZUEN AZPIEGITURA
KEPA SACRISTÁN jn.

ÁREA DE SERVICIOS TÉCNICOS-INFRAESTRUCTURA SERVICIOS.
D. KEPA SACRISTÁN

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

CONSULTORA:
D^a EUGENIA ATIN

BERTARATUTAKOAK:

ASISTENTES:

KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)
IÑIGO AZKARATE jn. (Trinitarias)
YENNY MEDRANO and. (Getxo Enpresako ordezkaria),
JOSERRA OTEGI jn. (Ekologistak Martxan)
EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja)
JOKIN CORTEZOR jn. (Argia Fundazioa)
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
ÁNGEL ASENSIO jn. (Basozaleakeko ordezkaria)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona).

D^a KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar)
D. IÑIGO AZKARATE (Centro escolar Trinitarias)
D^a YENNY MEDRANO (Representante de Getxo Enpresa)
D. JOSERRA OTEGI (Ekologistak Martxan)
D. EMILIO MARTINEZ (Centro escolar Julio Caro Baroja).
D. JOKIN CORTEZOR (Fundación Argia)
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
D. ÁNGEL ASENSIO (Representante de Basozaleak)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute:
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)

Excusa su no asistencia:
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarías Vasca)

Getxon, 2023ko urriaren 17an. Gaurko arratsaldeko zazpitan Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu da eta aipatutako kideak etorri dira.

En Getxo, a 17 de octubre de 2023 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

GAI-ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela.

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

1.- Bertaraturakoak aurkeztea

Ordezkarri bakoitzak bere izena eta ordezkatzeko duen elkartearen edo erakundearen izena den esateko aurkezpen erronda bat egin da.

Getxoko alkateak nabarmendu du Ingurumeneko Tokiko Foroaren lana, eta azpimarratu du garrantzitsua dela hiru agendak (soziala, ekonomikoa eta ingurumeneko) orekatuta egotea giza garapen jasangarria bat etorri dadin Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH).

Halaber, adierazi du oraindik lan asko dagoela egiteke eta aldaketa kulturala nahiz banakakoa egin behar dugula; zehazki, ez da aldaketa drastikorik egin behar, baina gu geu aldatzen bagara (banakako aldaketa eginez), inguruan eragingo dugun eta ondorioak zabalduko dira.

2.- Ingurumeneko Tokiko Foroak 2023ko apirilaren 25ean egindako bilerako akta onestea.

Aho batez onetsi da akta.

3.- Getxoko jasangarritasun-adierazleen txostena (2021-2022 urteak) aurkeztea.

Eugenia Atinek foroaren kideei gogorarazi die aipaturako txostena bi urterik behin egiten dela eta bertan jasotzen direla Getxoko tokiko jasangarritasun-adierazle nagusiak, 2006az geroztik eskura dagoen informazio alderagarriekin.

Adierazleek 2022ra arte izandako bilakaera azaltzen duen txostena aurkeztu da. Txostenean hamar arlo jorratu dira eta laburki azaldu dira emaitzak:

Adierazleak azalduz joan ahala, foroaren kideek parte hartu dute euren iritzia aipatzeko edo jardura hobetzeko, betiere jasangarritasuna helburu.

Hondakinak

Hondakinen sorrerari, gaikako bilketari eta errefusari buruzko datuak aurkeztu dira.

Javier Loidik adierazi du zati birziklagarriaren bilakaera positiboa dela baina, hala ere, bere ustez gutxi hazi dela eta joera asintotikoa duela. Kepa Sacristánek erantzun du 2023ko datuak oso onak direla eta % 40 gaintu dugula jada; hala, 2024an beteko ditugu 2025erako ezarritako helburuak. Foroaren kideak gonbidatu ditu hondakinen lantaldean parte hartu dezaten gai horri buruzko datu gehiago bertatik bertara ezagutze aldera.

Joserra Otegik galdetu du zein den zati organikoaren bilketari buruzko datuen egoera. Kepa Sacristánek azaldu du 1200 tona inguru izan direla (hondakin guztien % 4, alegia); hala, % 2,7ko alde dago 2021. urtearekin alderatuta. Inausketa-hondakinak ere 270 tona izan dira. Konposta egiteko instalazioak 2800 tonako edukiera du,

1.- Presentación de las personas asistentes

Se realiza una ronda de presentación donde cada representante indica su nombre y la asociación o entidad a la que representa.

La Alcaldesa de Getxo pone en valor la labor de este Foro Local de Medio Ambiente y la importancia del equilibrio de las tres agendas (social, económica y medio ambiental) para un desarrollo humano sostenible alineado con los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

Asimismo incide en que aún queda mucho trabajo por hacer y que se requiere un cambio cultural e individual, no se trata de un cambio drástico sino que a través del cambio individual influimos en el entorno y se extienden los efectos.

2.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 25 de abril de 2023.

Se aprueba el acta por unanimidad.

3.- Presentación del informe de Indicadores de Sostenibilidad de Getxo (años 2021-2022).

Eugenia Atin recuerda a los miembros del Foro que este informe es elaborado con carácter bianual y que recoge los principales indicadores de sostenibilidad local de Getxo, con información comparable desde 2006.

Se presenta el informe con la evolución de los indicadores hasta el año 2022. El informe aborda 10 áreas diferentes y se presentan brevemente los resultados:

A medida que se van explicando los indicadores, los miembros del Foro intervienen para comentar sus impresiones o sugerir medidas para mejorar el desempeño en clave de sostenibilidad.

Residuos

Se presentan los datos de generación de residuos, recogida selectiva y fracción resto.

Javier Loidi señala que a pesar de que la evolución de la fracción reciclable es positiva, le parece un crecimiento modesto y con tendencia asintótica. Kepa Sacristán responde que los datos de 2023 son muy buenos y que ya hemos superado el 40% y que en 2024 habremos cumplido con los objetivos fijados a 2025. Invita a los miembros del Foro a participar en el Grupo de Trabajo de Residuos para conocer de primera mano más detalles sobre este tema.

Joserra Otegi se interesa por saber cómo vamos con los datos de recogida de la fracción orgánica. Kepa Sacristán explica que unas 1200 toneladas lo que supone un 4% del total de residuo, lo que supone un salto del 2,7 con respecto a 2021. De toda hay otras 270 toneladas. La planta de compostaje está prevista para 2800 toneladas.

Ura eta airea

Ur-kontsumoari, etxeko kontsumoari, banaketa-sareko galerei, saneamendu-sarera konektatutako etxebizitzetara eta bainatzeko uren kalitateari buruzko datuak aurkeztu dira, bai eta udalerriko aire-kalitateari buruzkoak ere.

Kepa Sacristánek adierazi duenez, ur-kontsumoan lortu den aurrezki oso adierazle garrantzitsua da, nabarmendu beharrekoa. Sarearen eta tasen gehikuntzaren antzinasuna gorabehera, urtean 200.000 euro aurrezteko lortu da.

Moten arabera bereizten badugu, etxeko kontsumoa eta erakundeena gehien jaitsi direnak dira. Industriako kontsumoa igo da, baina Kepa Sacristánek arabera horren arrazoia izan daiteke orain ura kontrolatzen dela; izan ere, lehen kontsumitzen zen baina ez zen zenbatzen, eta orain zenbatu egiten da.

Ángel Asensiok ur beltzak berreskuratzeari buruz galdetu du, erabileraren bat ematen ote zaien jakin nahi baitu. Kepa Sacristánek erantzun du Galeako golf-klubak hondakin-ur horiek ureztatzeke erabiltzen zituela antzina, baina gaur egun ez. Zaila da, legez ur horiek tratatu behar direlako.

Bainatzeko uren kalitateari dagokionez, Josu Atekek adierazi du bainatzeko debekua jarri den egunetan Areeta eta Ereaga hondartzetarako izan dela gehienetan eta euri asko egin duen egunetan izan dela; izan ere, Galindoko sarea ez denean nahikoa zerbitzuari erantzuteko, gainezka egiten du eta itsasadarrean amaitzen du urak.

Hiriko airearen kalitateari dagokionez, Karmele Urkijok esan du geroz eta sarriago gertatzen dela Saharako hautsa geurera heltzea eta partikula esekiak ikusten direla. Joserra Otegi galdetu du ea non dagoen neurtzeko estazioa. Hilerrian dago eta, hortaz, kutsadura ikusten da handik, bereziki superportutik datorrena. Lehen Areetan eta Trinitarioetan ere zeuden estazioak, baina orain furgoneta batetik neurtzen du Eusko Jaurlaritzak, puntu estrategikoetan kokatzen dena.

Zaratak

Zarata buruzko adierazle berri eman da, bai eta erregistratutako gorabeheren berri ere. Ángel Asensiok galdetu du ea aireko zarata ere neurtzen ote den. 2015eko eta 2021eko zarata-mapetan hiru foku neurtzen dira: kalea, errepidea eta trenbidea. Ez da airekoa kalkulatu, legez Getxo ez dagoelako ukipen-eremuaren barruan.

Ángel Asensiok isurketa gutxiko guneei buruz ere galdetu du: jakin nahi du ea Getxon mugatu ote diren. Josu Atekek erantzun du gaur egun udalerriko airearen kalitatea neurtzen dabiltzala, neurriak hartu ahal izateko ezinbestekoa baita lehenik eta behin jakitea zein den daukagun egoera. Kepa Sacristánek gehitu du legea ez dela argia eta hori argitzeko zain dagoela Getxo; izan ere, ordenantzak aldatu behar dira eta erabilerak arautu, baina neurriak hartu dituzten hiri batzuk aztergai dira Auzitegi Gorenean, balitekeelako neurri horiek inoarrizko eskubideak urratzea.

Aguas y aire

Se presentan los datos de consumo de agua, consumo doméstico, pérdidas en la red de distribución, viviendas conectadas a la red saneamiento y calidad de las aguas de baño, así como la calidad del aire urbano.

Kepa Sacristán señala que el ahorro conseguido en el consumo de agua es un indicador muy relevante que merece ser puesto en valor. A pesar de la antigüedad de la red y del incremento de las tasas se ha logrado un ahorro de 200.000 euros al año.

Por tipos, el consumo doméstico y el institucional son los que más han bajado. El consumo en la industria ha subido, pero según Kepa Sacristán, esto podría ser debido a que ahora se controla el agua, antes se consumía pero no se contaba y ahora sí que se cuenta.

Ángel Asensio pregunta por la recuperación de las aguas fecales, si se les da algún uso. Kepa Sacristán responde que antiguamente el Club de Golf de la Galea utilizaba estas aguas residuales para riego pero ya no. Es complicado porque legalmente las aguas tienen que estar tratadas.

Con respecto a la calidad de las aguas de baño, Josu Ateka apunta que los días no aptos para baño suceden sobre todo en las playas de Areeta y Ereaga, coincidiendo con los días de mucha lluvia, que cuando la Red de Galindo no da abasto, desborda y acaba en la ría.

Respecto a la calidad del aire urbano, Karmele Urkijo comenta que cada vez hay más días con polvo del Sahara y que se aprecian las partículas en suspensión. Joserra Otegi se interesa por saber dónde está la estación de medida. Está en el Cementerio y por tanto allí se aprecia sobre todo la contaminación proveniente del Superpuerto. Antes también había estaciones en Areeta y Trinitarios, ahora Gobierno Vasco mide desde una furgoneta en puntos estratégicos.

Ruidos

Se explican los indicadores relativos al ruido y las incidencias registradas. Ángel Asensio pregunta si también se mide el ruido aéreo. En los mapas de ruido de 2015 y 2021 se miden tres focos: calle, carretera y ferrocarril. No se calcula el aéreo porque legalmente Getxo no está en el radio de afectación.

Ángel Asensio se interesa también por las zonas de bajas emisiones, si están delimitadas ya en Getxo. Josu Ateka responde que en la actualidad se está midiendo la calidad del aire en el municipio ya que para adoptar medidas primero debemos saber cómo estamos. Kepa Sacristán añade que la ley no es clara, y que Getxo está esperando que se aclare ya que hay que modificar ordenanzas y regular usos y que en algunas ciudades en las que se han tomado medidas, el Tribunal Supremo está estudiándolo porque puede que se vulneren derechos fundamentales.

Sozioekonomikoa

Biztanleriari buruzko ikuspegi orokor baten berri eman da: immigrazioa, euskara, langabezia, pobrezia eta bazterkeria.

Karmele Urkijok esan du gure biztanleriak madalena dirudiela piramidea beharrean. Esan du gazteak doazela, baina hala ere ikusten dela seme-alaba nerabeak dituzten familia berriak datozela. Javier Loidik azaldu du naturalki konponduko dela piramidea eta 30 urte barru ondo egongo dela berriz ere. Iñigo Urkitzak jakinarazi du Etxebizitza Plan berria duela udalak eta, horren arabera, posible izango dela biztanleen % 65ek babes ofizialeko etxebizitza edukitzeen jarraitzea eta lurzorua % 80 urbanizagarria izatea. Javier Loidik nabarmendu du garrantzitsua dela erabilitako etxebizitzak birgaitzea.

4.7. adierazlea, bigarren hezkuntzako ikasketei buruzkoa, dirudienez txarto jaso da, sinesgaitza delako Getxoko horren pertsona gutxi izatea bigarren hezkuntzako ikasketak. Halaxe da, akats bat egin zen adierazle hori jasotzean; izan ere, 2021ean, 16 urtetik gorako biztanleen % 70,26 gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak zituen (bigarren hezkuntzako ikasketak, erdi-maila aurreratuko ikasketak eta goi-mailakoak). Txostena zuzendu da.

Iñigo Azkaratek galdetu du zein den gizarte-larrialdiko laguntzaren (GLL) eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) arteko aldea. Gure kasuan, udalak ematen ditu GLLak eta ez dira aldizkakoak, unean unekoak baizik. DSBEa, berriz, Eusko Jaurlaritzak ematen du Lanbideren bidez, eta aldizkako da. Joserra Otegi esan du harrigarria iruditzen zaiola Getxon horrenbeste pertsonak jasotzea laguntzak (gutxi gorabehera, biztanleriaren % 2k). Karmele Urkijok erantzun du berari ez zaiola gehiegizkoa denik iruditzen, Getxoko gune batzuetan beharizan handia baitago. Aintzat hartu behar da ere Getxoko biztanleria oso zaharkituta dagoela.

Etxebiden jasota dauden eskaerei dagokienez, Joserra Otegi galdetu du ea eskaintzaren datua ote daukagun. Udalak erantzun du egindako diagnostikoaren arabera 33.000 etxebizitza daudela Getxon eta horietatik 1.030 hutsik daudenen sailkapenean sartu direla, baina soilik 950 daudela hutsik.

Parte-hartzea eta ingurumen-hezkuntza

Honako datu hauek jaso dira: herritarren parte-hartzea, egindako foroaren kopurua, Ingurumen Gelaren erabiltzaile-kopurua eta ibilbide ekologikoetan parte hartu duen talde-kopurua.

Emilio Martinez eta Iñigo Azakarete irakasleen esan dute oso zaila dela ikasleekin irteerak egitea. Gurasoak kezkatzen dira eta diote irteera gehiegi egiten dituztela; hortaz, irteeren kopurua murriztu diete Ingurumen Gelara urtean behin joan daitezen. Ángel Asensiok Ingurumen Gelaren lan zoragarria azpimarratu du.

Socioeconómico

Se da una visión general sobre los datos poblacionales, inmigración, euskera, desempleo, pobreza y exclusión.

Karmele Urkijo indica que más que una pirámide de población, es una magdalena. Comenta que las personas jóvenes se van pero a pesar de todo se está apreciando como llegan nuevas familias ya maduras con hijos e hijas adolescentes. Javier Loidi explica que la pirámide se arreglará naturalmente y que dentro de 30 años estará bien. Iñigo Urkitza informa de que el Ayuntamiento cuenta con un Nuevo Plan de Vivienda para mantener la población con un 65% de vivienda de protección oficial y un 80% en urbanizable. Javier Loidi recalca la importancia de la rehabilitación de la vivienda usada.

El indicador 4.7 de estudios secundarios parece estar mal recogido puesto que resulta muy improbable que haya tan poca gente en Getxo con estudios secundarios. Efectivamente, había un error en el indicador, en 2021, el 70,26% de la población de más de 16 años tiene al menos los estudios secundarios superados (estudios secundarios, medio-superiores y superiores). Se corrige en el informe.

Iñigo Azkarate pregunta por la diferencia entre AES (ayudas de emergencia social) y la RGI (renta de garantía de ingresos). Las AES las otorga el Ayuntamiento en nuestro caso y no son de carácter periódico, son puntuales. La RGI la otorga Gobierno Vasco a través de Lanbide y es periódica. Joserra Otegi comenta que le parece un dato significativo que haya tanta gente en Getxo recibiendo ayudas (aproximadamente un 2% de la población). Karmele Urkijo responde que a ella no le parece excesivo, que hay zonas en Getxo donde hay mucha necesidad. Y hay que tener en cuenta que la población en Getxo es muy envejecida.

Con respecto a las solicitudes de Vivienda que constan en Etxebide, Joserra Otegi pregunta a ver si tenemos el dato de la oferta. El Ayuntamiento responde que en el diagnóstico realizado, de las 33 mil viviendas en Getxo, 1.030 eran clasificadas como vacías y apenas 950 estaban realmente vacías.

Participación y educación ambiental

Se presentan datos de participación ciudadana, número de foros realizados, personas usuarias del Aula Medioambiental y grupos participantes en itinerarios ecológicos.

Los profesores Emilio Martínez e Iñigo Azakarete señalan las dificultades para hacer salidas con el alumnado. Los padres y madres se quejan de que hacen demasiadas excursiones y por tanto les restringen a una salida anual al Aula medioambiental. Ángel Asensio recalca la labor extraordinaria del Aula Ambiental.

Lurzorua

Parkeen eta lorategi publikoen azalerari, kutsaturik egon daitezkeen lurzoruen azalerari eta azalera babestuari buruzko adierazleen berri eman da.

Energia

Egiaztapen energetikoari, berriztagarrien ekoizpenari, elektrizitatearen kontsumoari (industrial eta ez-industrial) eta udal-kontsumoari buruzko kopuruak azaldu dira.

Jokin Cortezorrek eraikin publikoei buruz galdetu du. Kepa Sacristánek azaldu du auditoretzak egin direla eta apustu argia egin dela energia berriztagarrien nahiz energia-efizientziaren alde. Getxoko eraikin berezi askotan zaila da esku hartzea; alabaina, eraikin berrietan geotermiaren aldeko apustua egin da eta inguratzaile termikoaren gainean ere egin dira jarduketak.

Ildo horretatik, Xabi Buenetxeak eskatu du eraikinak birgaitzen direnean errespetatu daitezela fatxadetan bizi diren animaliak eta aintzat hartzea balitekeela bao batzuetan narrastiak, sugandilak, sorbeltzak, Schreibers saguzarrak eta abar egotea.

Garraioa eta ibilgailuak

Honako hauei buruzko adierazleak jaso dira: bidegorriak, aparkaleku publikoen plazarak, (azalera eta mugikortasun urria), eta Getxon dauden ibilgailuen kopurua; datu horiek Estatuko eta Europako herrialdeetako datuekin erkatu dira.

Bidegorriko kilometroen adierazlea berrikusi behar da, 19,3 km gutxi direla ematen duelako.

GetxoBizi

Udal-bizikleten maileguei buruzko datuen berri eman da.

Biodibertsitatea

Honako hauek jorratu dira emandako datuetan: babes bereziko espezieak, harrapatu eta Bolue hezegunetik atera diren apoarmatu exotiko inbaditzaileak, apo lasterkariren ugalketaren gaineko jarraipena, eta antzeman diren hegaztien kopurua.

Ángel Asensiok hartu du hitza eta galdetu du zenbat espezie egonkor dauden. Xabi Buenetxeak esan dio webgunera sartzeko, bertan argitaratu baita inbentario osoa. Galdetu du ere zein den klimak biodibertsitatean izan duen eragina. Egia da eragina izan duela, bereziki hegaztien migrazioan.

Gobernantza

Adierazle berri honek islatzen du Tokiko Agenda 2030 eta Eskola Agenda 2030 programen arteko koordinazio-maila.

Suelo

Los indicadores relativos a la superficie de parques y jardines públicos, superficie de suelos potencialmente contaminados y superficie protegida.

Energía

Se presentan los números relativos a la certificación energética, producción de renovables, consumo de electricidad (industrial y no industrial) y consumo municipal.

Jokin Cortezor se interesa por los edificios públicos. Kepa Sacristán explica que se han hecho auditorías y que hay una apuesta clara por las energías renovables y por la eficiencia energética. Getxo cuenta con mucho edificio singular donde las intervenciones son complicadas pero en edificios nuevos se apuesta por la geotermia y también se actúa sobre la envolvente térmica.

En este sentido Xabi Buenetxea apunta a que las rehabilitaciones se hagan siempre respetando a los animales que viven en fachadas, tener la visión de que pueda haber huecos que facilite el cobijo a reptiles, lagartijas, vencejos, trogloditas, etc.

Transporte y parque móvil

Se muestran los indicadores en relación a los bidegorris, plazas de aparcamientos públicos (superficie y movilidad reducida), y número de vehículos en Getxo y su comparativa con el estado y países europeos.

El indicador de kilómetros de bidegorri debe ser revisado puesto que parece que 19,3 km es poco.

GetxoBizi

Se presentan las cifras de los préstamos de bicicletas municipales.

Biodiversidad

A continuación se presentan los datos relativos a las especies de protección especial, los galápagos exóticos invasores capturados y extraídos del humedal de Bolue, el seguimiento reproductivo del sapo corredor y el número de especies de aves detectadas.

Ángel Asensio interviene para preguntar por el número de especies estables. Xabi Buenetxea le dirige a la web donde está todo el inventario publicado. También se interesa por saber cómo está afectando el clima en la biodiversidad. Efectivamente, está habiendo un impacto sobre todo en la migración de aves.

Gobernanza

Este nuevo indicador indica el grado de coordinación entre Agenda Local 2030 y la Agenda 2030 Escolar.

4.- Getxon ingurumenari dagokionez dauden kezken gaineko eztabaida.

Taldeko dinamika egin da: ideia-jasa.

Parte-hartzaileek hausnartu dute eta hauxe idatzi dute post-it papertxoetan: batetik, hurrengo bileretan gehiago jorratu nahiko lituzketen gaiak, hau da, saio monografikoetan landu beharreko gaiak; bestetik, jasangarritasunari dagokionez udalak indartu beharko lituzkeen jarduketa- edo ekintza-ildoak, Tokiko 2030 Agenda Plan berrian sartu beharrekoak.

Idea guztiak jaso dira eta foroaren hurrengo bileran helduko zaie.

5.- Galde-eskeak.

Erabaki da ahal dela astearteetan bilduko dela foroa.

Aurreikusi da foroaren hurrengo bilera azaroaren 14an (asteartea) izatea.

20:55ean, bilera amaitutzat jo da.

4.- Debate sobre las preocupaciones de tipo medioambiental en Getxo.

Se hace una dinámica grupal de tipo “brainstorming” o lluvia de ideas.

Las personas participantes reflexionan y apuntan en post-its por un lado los temas sobre los que les gustaría hablar más en las próximas reuniones, es decir, temas que merecen ser tratados en sesiones monográficas, y por otro lado, las líneas de actuación o acciones que el Ayuntamiento debería reforzar en materia de sostenibilidad y que deberían incluirse en el nuevo Plan de Agenda Local 2030.

Se recogen todas las ideas y éstas serán tratadas en la próxima reunión del Foro.

5.- Ruegos y preguntas.

Se acuerda que las reuniones del Foro se realizarán preferiblemente los martes.

La próxima reunión del Foro será previsiblemente el martes 14 de noviembre.

A las 20:55 horas se da por finalizada la reunión.